

BESTELAKO XEDAPENAK

LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA

1222

EBAZPENA, 2021eko otsailaren 17koa, Garraio Plangintzaren zuzendariarena, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko salgaien eta bidaiarien errepideko garraio publikoan ingurumena, energia eta kalitatea kudeatzeko sistemak ezartzeko laguntza-programa bat ezartzen duen 2020ko maiatzaren 4ko Aginduan aurreikusitako laguntzen onuradunen zerrenda.

Dirulaguntzak emateko errespetatu behar den publikotasun-printzipioa betetzeko, 2020ko maiatzaren 4ko Aginduak 9.3 artikuluan xedatzen duenez, dirulaguntza guztiak emandakoan onuradunen eta emandako zenbatekoen zerrenda Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharko da.

Hortaz, aurreko paragrafoan zehaztutakoaren arabera, honako hau,

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Jendaurrean jartzea Euskal Autonomia Erkidegoko salgaien eta bidaiarien errepideko garraio publikoan ingurumena, energia eta kalitatea kudeatzeko sistemak ezartzeko laguntza-programa bat ezartzen duen Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituretako sailburuaren 2020ko maiatzaren 4ko Aginduan aurreikusitako laguntzen onuradunen zerrenda eta emandako zenbatekoak, Garraio Plangintzaren zuzendariak bere eskumenak erabiliz eman dituen ebazpenen arabera, ebazpen honen eranskinean doaz onuradunen zerrenda eta emandako zenbatekoak.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko otsailaren 17a.

Garraio Plangintzaren zuzendaria,
IVAN PEDREIRA LANCHAS.

ERANSKINA

LAGUNTZEN ONURADUNAK ETA ZENBATEKOAK. LAGUNTZA HAUEK AURREIKUSITA DAUDE EKONOMIAREN GARAPENeko ETA AZPIEGITURETAKO SAILBURUAREN 2020KO MAIATZAREN 4KO AGINDUAN, ZEINAREN BIDEZ EZARTZEN BAITA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO SALGAIEN ETA BIDAIARIEN ERREPIDEKO GARRAIO PUBLIKOAN INGURUMENA, ENERGIA ETA KALITATEA KUDEATZEKO SISTEMAK EZARTZEKO LAGUNTZA-PROGRAMA

Onuraduna	Dirulaguntza (eurotan)
T.M.I. Trans Sociedad Limitada	525,00
Carnes Erdella SL	957,50